



BOST URTE BETEKO DITU **TOPAGUNEAK**

Tolosako Topaguneko arduradunek astebururako ekitaldiak antolatu dituzte urteurrena ospatzeko > 2

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2009-11-11**

VII URTEA 1.824. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



«Emakumearen ohiko estereotipoek komikietan jarraitzen dutela» azaldu zuen atzo Josune Muñozek. E. EZEIZA

EMAKUMEAK ETA KOMIKIAK AZTERGAI

TOLOSA Emakumeak komikigintzan duen tokiaz mintzatu zen atzo Josune Muñoz, Tolosaldea Garatzeneko Immigrazio sailak antolatuta > 2

Konpostagintza sustatzeko kanpaina abiarazi dute

TOLOSALDEA Tolosaldeko Mankomunitateak informazio postalak banatzeko ditu > 3



Albizturko eskolan, esate baterako, badute konpostagailua. E. EZEIZA

Larunbateko 'Erreka eguna' izango da Kultur Asteko lehen ekitaldia

ADUNA Azaroaren 22ra arte askotariko ekitaldiak antolatu ditu Udalak > 4

JON JAUNARENA PILOTARIA

«Aurkaria atzean edukitzen saiatu nintzen, hanka bizkorrak ditu eta»

LEITZA Nafarroako Kluben Arteko Txapelketan 18-5 irabazi zion Zarantoni, larunbatean > 7



HITZA

Kontzertua eta bazkariarekin ospatuko dute Txintxarri Eguna igande honetan

ALEGIA Mezak, kontzertuak eta bazkariak ospatuko dute eguneko egitaraua > 5



HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera pare** ditu

PAPIRO...FLEXIA
Breakdance multimedia show
emanaldirako



Azaroak 13 • Ostirala
20:30ean
Tolosako Leidorren

TXOKOA hitza

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

Euskal Herriko
Bertsolari Txapelketaren
baitan ospatuko den
bertso saiorako



Azaroak 14 • Larunbata
17:30ean

Tolosako Usabal Kiroldegian

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak

Laburrak**Presoen egoeraren inguruko hitzaldia, bihar**

GIZARTEA • Bihar, espeteratuekiko Pastoraltzak antolatuta, hitzaldia izango da Santa Maria parrokiako bilera-gelan. 19:30ean izango da jardunaldia, gazteleraz. Bertan, presoen kartzelan pairatzen duten egoeraz mintzatuko da Arantxa Bajineta gizarite laguntzailea.

Gaur, Mugikortasun Mahaiairen bigarren bilera

GIZARTEA • Mugikortasun Mahaiairen funtzionamendua arautuko duen behin behineko dokumentu bat aurkeztu zen urriaren 28an. Honen inguruko ekarpenak komunean jartzeko bigarren saio bat egitea adostu dute Mahaiko ordezkariak. Bilerak gaur izango da, 20:00etan, Udaletxeko areto nagusian.

Oargik antolatuta, espeleologia ikastaroa

KIROLAK • Oargi mendi elkarrekin espeleologia ikastaroa antolatuta du. Bihartik igandera bitartean izango da. Izen-ematea 688 69 86 42 telefono zenbakian edo info@oargi.org helbidera idatzita egin daiteke.

Telefonoak**Larrialdiak. ((112))****OSASUNA.****Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212**Anoeta-Alkiza-Hermialde.**

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423**Baliarrain.** Medikua: 943 889003**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Orendain.** Medikua: 943 655595**Orexa.** Medikua: 943 682228**Tolosa.****Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111**San Esteban:** 943 006800**Gernikako arbola:** 943 006900**Amarozko dispen.:** 943 672637**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536**Villabona.** Anbulat.: 943 006970**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930**GARRAIOAK.****Renfe:** 902 24 02 02**Donostiako autobusa:** 943 361740**Tolosalde bus:** 943 650621**Leitzaranz autob.**: 948 221015**Taxia:** 943 670420**Taxia (Leitza):** 608 873016**BESTERIK.****Ertzaintza:** 943 538820**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858**Tolargi:** 943 650016**Iurreremendi egoitza:** 943 670325**Tolosa gasa:** 943 675320

Gazte Topaguneak bere bosgarren urteurrena ospatuko du asteburuan

Aisia » Ostiralean, merendola batekin ekingo diete ekitaldiei, eta igandean, erakusketarekin amaiera emango diete.

ERREDAKZIOA

Bost urte betetzen ditu aurten Tolosako Gazte Topaguneak. Duela urte batzuk jaiotako haurtxoa handi egiten ari dela esan daiteke. Gazteak biltzeko, lagunartean egoteko eta beraien asmo nahiz ideiak gauzatzeko helburuz ireki zituen atekak orduan, Tolosako Kultur Etxean. Orain, helburu berdinak izaten jarraitzen du, eta bide beretik, hainbat ekintza gauzatzeko dituzte urte guztian zehar.

Aste honetan, urteurrena ospatzeko asmoz, zenbait ekintza burutuko dituzte. Lehendabizikoa ostiralean izango da, merendola hain zuzen ere. Hurrengoak berriaz, larunbat eta igandean izango dira.

Tolosako Topaguneak, asteburuetan, bertan egoteko eta lagunartean elkartzeko aukeraz gain, tailerrak, ikastaroak, jolasak eta hainbat irteeratan parte hartzeko aukera eskaintzen du. Hau 13-17 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta bi dinamizatzailerak gunearen arduradunak dira. Ostegun eta ostiralean, 17:00etatik 20:00etara dago zabalik, eta asteburuetan, 16:30etik 20:30era.



Urtean zehar hainbat ekitaldi egiten dituzte Topaguneak, tartean, Gazte Astea. HITZA

» TOPAGUNEAREN V. URTEURRENA**Azaroak 13, etzi**

■ **17:00.** Merendola egingo dute Kultur Etxeko Topagunean.

Azaroak 14, larunbata

■ **16:00.** Txan magoa Kultur Etxeko topagunean.

Azaroak 15, igandea

■ **16:00.** Argazki emanaldia. Kultur Etxeko Topagunean.



Duela bost urte inauguratu zuten Tolosako Gazte Topagunea. M. SOROA

Gizartea » Tolosaldea Garatzeneko Immigrazio sailak antolatuta, Josune Muñoz adituaren mintzaldia izan zen atzo.

ERREDAKZIOA

Komikigintzaz, eta bertan emakumeak izan duen tokiaz mintzatu zen atzo Josune Muñoz, Kultur Etxean. Tolosaldea Garatzeneko Immigrazio sailak antolatuta, emakumeak, nazioarteko komikietan zein islada izan duten azaldu zuen mintzaldian.

Japoniako manga komikietatik hasi eta Korea, Italia nahiz, beste hainbat herrialdeetakoak aztertu zituzten. Bertan, Muñozek adierazitakoaren arabera, oraindik ere komikietan, emakumearen ohiko estereotipoek hor jarraitzen dute. Horren adierazle, hauek argaltzeko joera dago. Hala ere, gero eta gehiago dira, beste proposamen batzuk luzatzen dituzten komikiak. Irudi sexistak eta misojenoak askotan ikusi ahal izan dira historian.

Munduan zehar, komikietan,

Emakumeek komikietan zer nolako islada duten aztergai izan da



Historian eredu izan diren hainbat komikiren bitartez aztertu zuten atzo gaia, Tolosako Kultur Etxean. E. EZEIZA

emakumeak isladatzen diren aztertzerako garaian, hiru dira kontuan hartzen diren puntuak. Alde batetik, begirada dago. Hau da, komikiak emakumearenganako

duen sentsibilitatea. Bestetik, istorioa edo kontatzen dena dago. Mendebaldeko ez diren edo etorkinaren diren emakumeek istorio desberdinak badituztela kontatze-

ko hausnarketa eginaraziz. Azkenik, trazua deitzen zaion puntua dago. Honak begiratzen duena da, ea istorio hauek zein marrazkirekin laguntzen dituzten.

Konpostagintza sustatzeko kanpaina abian, Mankomunitatearen eskutik

Gizartea » Etxean sortutako materia organikoa konpost bihurtzeko prest dauden ahalik eta pertsona gehien bilatzea da helburua.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Mankomunitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, etxeko konpostagintza sustatzeko kanpainari ekin dio. Ekimen hau 2005ean jarri zuten abian, eta egun, esperientzian gogor parte hartzen ari diren 568 familia dauka, lorategi edo baratzetan, konposta lortzeko ontzi bat jarrita dutenak.

Larunbatetik aurrera kanpaina honetan parte har dezaketen etxebizitzetan informazio postalak banatuko ditu Tolosaldeko Mankomunitateak, hau da, konpostagailua jartzeko lorategia edota baratza duten etxeetan. Aipatu kanpaina Tolosaldeko Mankomunitatearen osatzen duten herritarguztietan zuzendua badago ere, postalen banaketa pausoz-pauso egingo dutela jakinarazi dute.

Kanpaina honetan parte har dezake etxean lorategia edo baratza duen eta sukaldarian edo lorategian sortutako gai organikoekin konposta egiteko prest dagoen edozein pertsonak.

Konpostagailu erabiltzen ikasteko tailerra

Kanpainara atxikitu nahi dutenek tailer batean parte hartuko dute eta konpostagailua behar bezala erabiltzeko beharrezko guztia ikasiko dute. Ordu eta erdiko tailerrak izango dira eta, ondoren, konpostagailua eta etxean konpostatzeko eskuliburua banatuko da doan.



Duela bi urte ere egin zuten kanpaina; irudian, Fraisoron egindako saioa. HITZA

Era berean, posta elektronikoz eta telefonoz aholkularitza-zerbitzua eskainiko da sortzen diren zantziak eta arazoak konpontze alderantz.

Kanpainan parte hartu nahi duenak, Tolosaldeko Mankomunitatearekin harremanetan jarri beharko du; 943 67 62 16 telefonon edota info@tolosaldea.org helbide elektronikoa, eta larunbat honetan edo hilaren 24an eta 30ean, arratsalde, izango diren tailerren batean izena eman.

Konposta egiteko prest dauden pertsonen bila

Kanpainaren helburua etxean sortutako materia organikoa konpost bihurtzeko prest dauden ahalik eta pertsona gehien bilatzea da.

Konposta materia organikoa (fruta hondarrak, barazkiak, hos-

toak, adar txikiak,...) deskonposatu ostean lortzen da. Horretarako, lur-rean modu naturalean dauden mikroorganismoek euren lana egiten dute.

Lorategiko edo baratzeko landare-hondarretatik eta landareen elikagai-hondakinetatik, prestatu gabe baldin badaude, abiatuta, etxean konposta egin daiteke. Hala, hiri-hondakin gutxiago sortzen da, hondakin sorregera gutxitzeko neurri bat da beraz. Sistema honi esker lau kidez osatutako familia tipoak 320 kilogramo hiri hondakin gutxiago sor ditzake urtean eta 80 kilogramo konpost lor ditzake.

Kanpainan parte hartzen duten familiei esker, Tolosaldeko Mankomunitateak 182 tona zabor gutxiago botatzea lortu du Sasieta zabortegian.

» HAINBAT DATU

Zer konposta daiteke?

■ **Sukaldetik.** Fruta eta berdura gordinen, egosiaren edo errearen hondarrak. Arrautza-oskolak. Yogurt eta zuku iraukiak. Kafe-hondar eta iragazkiak. Infusioen hondarrak eta poltsatxoak. Sukaldeko papera, paperezko ezpain-zapiak... Kartoi-zoko arrautza-ontziak, kartoi izurtua...

■ **Lorategiak.** Hostoak, loreak eta landare berde edo lehorrak. Belarra. Kimaketa-hondar txikiak. Egur naturalaren erraustak eta zerraustak. Baratzeko uzta-hondarrak. Fruta eraria. Lastoa.

Konpostagailuen banaketa

- **Abaltzisketa.** 4
- **Aduna.** 10
- **Albiztur.** 5
- **Alegia.** 9
- **Alkiza.** 12
- **Altzo.** 22
- **Amezketak.** 19
- **Andoain.** 72
- **Anoeta.** 27
- **Asteasu.** 46
- **Baliarrain.** 7
- **Belauntza.** 11
- **Berastegi.** 54
- **Berrobi.** 4
- **Elduain.** 19
- **Hernialde.** 15
- **Ibarra.** 23
- **Ikaztegieta.** 6
- **Irura.** 8
- **Larraul.** 18
- **Leaburu.** 16
- **Lizartea.** 4
- **Orendain.** 10
- **Orexa.** 2
- **Tolosa.** 78
- **Villabona.** 26
- **Zizurkil.** 37

Tolosako Gazte Independentistek lanuzteetara deitu dute gaurkorako

Azpiegiturak » Gaur hasiko dituzte Tolosan Abiadura Handiko Trena egiteko lur desjabetze akten sinadurak.

ERREDAKZIOA

Tolosako Gazte Independentistek lanuzteetara deitu dute gaurko, 09:30etik 12:00etara. Izan ere, gaur bertan hasiko dituzte Tolosa AHT egiten hasteko lur desjabetze akten sinadurak. AHT Gelditu! Elkarlanak ere elkarretaratzea deitu du gaurko, 10:30ean udaletxe parean, eta bertara joan ahal izateko deitu dute gazteek lanuzteetara.

Tolosako Gazte Independentistek argitu dutenez, «inposaketa hau eta asteazkenean gure herrian emango den lapurretaren salatza» egin dute deialdia. «Proiektu honetara herrian izan behar du eztabaidatua, azken batean herritarrek izango baikara eraginak jasango ditugunak», gaineratu dute.

Laburrak

Tolosa Kantari ekimeneko entseguak, gaur

TOLOSA » Gaur bertan Tolosa Kantari ekimeneko entseguak egingo dute, datorren Tolosa Kantari kantu-jira antolatzeko, azaroaren azken larunbatekoa, hain zuzen ere. Entseguak Tolosaldeko Udaleko Musika Eskolako gela batean (Gorosabel Zaharrean) egingo dute, iluntzeko 20:00etatik aurrera. Ekimeneko antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte bertan parte hartzera, abestiak eramanez.

Bilgune Feministaren elkarretaratzea, gaur

TOLOSA » Tolosaldeko Bilgune Feministak elkarretaratzea egingo du gaur 19:30ean Triangulon. Azken erailetan salatuko dituzte bertan. Izan ere, gizon batek bere emaztea eta amaginarreba hil zituen herenegun tiroz, Irisarri. Ondoren bere buruaz beste egiten ematen badute, izen-emate ordena hartuko da kontuan, beti ere Tolosa erroldatutakoek lehentasuna izango dutelarik.

Erretzeari uzteko ikastaroan izena emateko aukera, zabalik

Osasuna » Minbiziaren Aurkako Elkartearekin batera antolatu du Udalak ikastaroa; azaroaren 28an izango da, sei orduz.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuak erretzeari uzteko ikastaroa antolatu du, Minbiziaren Aurkako Elkartearekin batera. Ikastaro honetan parte hartu nahi dutenak datorren azaroaren 20ra arte eman dezakete izena.

Horretarako hainbat bide jarri dituzte. Tolosaldeko Udaleko Osasun

eta Gizarte Zerbitzuetan eman daiteke. Bai bertara joanda bai 943 69 74 60 telefono zenbakira deituta, astelehenik ostiralera 09:00etatik 14:00etara bitartean. Posta elektronikoz ere egin daiteke helbide honetara idatzita: gizartez-zerbitzuak@tolosakoudala.net. Bertan aurkeztu beharko diren datuak izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta k/k zenbakiak hobe digituak izango dira.

Ikastaroan izena ematerako orduan 100 euro ordaindu beharko dira. Berme moduan, hala ere, medoaren gida-lerro guztiak jarraitu baina erretzeari uztea lortu ez dutenei 60 euro itzuliko dizkiete.

Ikastaroaren nondik norakoak

Erretzeari uzteko ikastaro hau datorren azaroaren 28an, larunbatarrekin, izango da. Egun bakarreko ikastaroa da, sei ordukoa; hain zuzen ere, 09:00etatik 15:00etara garratuko da. Hala ere, ondoren jarraipenerako beste bi saio eskainiko dituzte hurrengo 3 hilabetetan zehar.

Udalak Minbiziaren Aurkako Elkartearekin batera antolatu zuen azken ikastaroa 2007an egin zen. Oraingo honetan berriz, formatu berria duen ikastaroa erabian nahi da aurrera. *Es facil si sabes como* izeneko enpresaren eskutik antolatu dute. Esperientzia

handikoa da eta emaitza oso onak ematen ari da.

Euskal Herria Plazako Zentro Sozialan egingo dute ikastaroa, Ilargi izeneko gelan. Taldea osatzeko gutxienez 11 lagunek hartu beharko lukete parte eta gehienez ere 22 lagunek. Gutxienezko kopuru hori ez balitz lortuko ikastaroa bertan behera geratuko litzateke. 22 lagunek baino gehiagok izena ematen badute, izen-emate ordena hartuko da kontuan, beti ere Tolosa erroldatutakoek lehentasuna izango dutelarik.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Larunbatean 'Erreka eguna' ospatuz hasiko dute Kultur Astea

Aduna » Udalak Kultur Aste oparoa prestatu du herritarrentzat: hitzaldiak, filmak, musika, pailazoak,... izango dira.

ENERITZ MAIZ

Larunbatean, azaroak 14, Adunan Kultur Asteari hasiera emango diote. Aste bat baino gehiago izango da eta era, gustu eta adin tarte ezberdinetarako ekintzak prestatu ditu Adunako Udalak. Adunarrekin, larunbatetik aurrera parte hartzeko eta gozatzeko aukera izango dute, beraz.

Hasiera, mendi irteerarekin emango diote. Goizean 10:00etan Plazan elkartuko dira eta *Erreka eguna* ospatuko dute. Mendi buelta egin ostean, filma emanaldia izango dute eta 50 minutuko iraupena duen *Uraren ametsa* ikusiko dute Kultur aretoan. Bestetik, ekitaldiekin amaitzeko 12:00etan Kantu Jiran ibiliko dira herrian zehar.

Azaroaren 16an, Kirolaren inguruko solasaldia izango dute eta horretarako kirolari ezberdinak elkartuko dituzte. Aitor Esnaola eskal jolasak eta jokoen inguruan ariko da, Getaria-Tolosa traineruko bi arraunlari ere izango dira eta Oier Mendizabal pilotaria izango dira solasaldian parte hartuko dutenak. Moderatzaile lanak berriz Jon Mirandak egingo ditu. Astelehenean, 20:00etan elkartuko dira Kultur aretoan.

Asteartean, hitzaldia izango dute eta gaia, *Ura zentzuz erabili* izango da. Kasu honetan ere,

20:00etan elkartuko dira Kultur aretoan eta gutxi gorabehera ordu eta erdiko saioa izango da.

Asteazkenean, Arratsaldeko 17:30ean, herriko haur eta gazte-txoen txanda izango da. Kultur aretoan elkartuko dira guztiak eta ahozko tradizioak diren zenbait ipuin kontatuko dizkiete. Jarraian 20:30ean eta kultur aretoan bertan hitzaldia eta era berean ikastaroa izango dute eta kasu honetan jorratuko duten gaia sendabelarrak izango da.

Ostegunean, *Itsasoaren alaba* filma ikusteko aukera izango dute Kultur aretoan 20:00etan hasita.

O+Hatz eta pailazoak

Ostiralean Adunan musikaren eguna izango dute izan ere bi musika emanaldi izango dituzte arratsaldean zehar. Lehenengo, Santa Xexili kontzertua eskainiko du Loatzoko Musika eskolak. Herriko musikari txikiak izango dira eta 18:00etan hasiko dute beraien kontzertua. Behin hauek amaituta eta musikarekin jarraituz, O+Hatz proiektua izango da Kultur aretoan 20:00etatik aurrera. Jon Garmendia eta Iñaki Plazaren musika proiektua da honako hau.

Ekitaldiz beteriko asteari amaiera igandean emango diote adunarrekin. Azken egunerako ere ekintza ederrak antolatuko dituzte. Alde batetik, haurrentzako pailazoak izango dira, *Pantxika ta txinparta ederra zalaparta* emanaldia eskainiko dute herriko frontoian 17:00etan hasita. Eta eguna bukatzeko, frontoian bertan 18:30etik aurrera tripabapo betetzeko aukera izango da. Barrikotea, taloak,



Larunbatean ere, ia bezala kantu jiran ibiliko dira herrian zehar. Beste herrietakoekin batera elkartu ziren ia. ASIER IMAZ

gaztain erreak... jateko aukera izango dute frontoian bertan.

Arabar Errioxara irteera

Azaroaren 21ean, larunbata, Arabar Errioxara irteera egingo dute. Bertako ardo bodega batean izango dute bazkaria eta izena emateko azken eguna azaroaren 15a, igan-

dea izango da. Bertara joan nahi duenak izena, Uztartza aterpetxean eman beharko du eta 45 euro ordaindu beharko du bakoitzak. Antolatzaileek 35 lagunentzako tokia dagoela jakinarazi dute. Egunean bertan, 09:00etan abiatuko dira Errioxa aldera eta horretarako Uztartza aparkalekura gerturatu

beharko da. Adunarrekin, larunbatean hasi eta datorren igandera bitarte ekintzaz beteriko astea izango dute. Ikasteko, entzuteko, ikusteko edota dastatzeko aukerarekin. Orain Adunako Udalak egindako ahaleginari herritarren aldetik erantzun ona ematea baino ez da falta.

» KULTUR ASTEKO EGITARAUA

Azaroak 14, larunbata

- **Mendi irteera.** *Erreka eguna*, ospatuko dute. 10:00etan Adunako plazatik abiatuko dira.
- **Filma.** Ondoren, *Uraren ametsa* filma botako dute Kultur aretoan.
- **Kantu Jira.** 12:00etan herrian zehar ibiliko dira.

Azaroak 16, astelehena

- **Kirolaren inguruko solasaldia.** 20:00etatik aurrera Kultur aretoan gonbidatu bezala izango dira, Aitor Esnaola euskal jolasak eta jokoa, Getaria-Tolosako bi arraunlari eta Oier Mendizabal pilotaria. Moderatzaile lanetan berriz, Igotz Alkorta arituko da.

Azaroak 17, asteartea

- **Hitzaldia.** *Ura zentzuz erabili*, 20:00etan Kultur aretoan.

Azaroak 18, asteazkena

- **Ahozko tradizioko zenbait ipuin.** Haur eta gaztetxoei zuzendua, 17:30ean Kultur aretoan.
- **Hitzaldi-ikastaroa.** *Sendabelarrak*. 20:30ean Kultur aretoan.

Azaroak 19, osteguna

- **Filma.** *Itsasoaren alaba*, 20:00etan Kultur aretoan.

Azaroak 20, ostirala

- **Kontzertua.** *Santa Xexili* kontzertua izango da Loatzoko Musika

eskolaren eskutik. 18:00etan Kultur aretoan.

- **O+Hatz.** Jon Garmendia eta Iñaki Plazaren musika proiektua. 20:00etan Kultur aretoan.

Azaroak 21, larunbata

- **Irteera.** Arabar Errioxako ardo bodegara irteera. 9:00etan Uztartza aparkalekutik.

Azaroak 22, igandea

- **Pailazoak.** *Pantxika ta txinparta ederra zalaparta*, 17:00etan frontoian.
- **Ondoren.** Barrikotea, taloak, gaztain erreak... 18:30ean, frontoian.

Gorrotxategi PRODUKTUAK

Turroi sorta **29€**

Tolosako xaxuak
Txakolin txakolatea
Jogurt turroia masusta gorriarekin
Aktikoa eta mertxika turroia

Turroi askotarikoak **19,50€**

Mandarina turroia boilur zurarekin
Txakolate turroia alimendekin
Mertxika turroia txakolatearekin
Jogurt turroia masusta gorriarekin

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUEKIN OSATUTAKO SASKIAK

Saskia **4€**

Ospoa-hatilo ardi gatz, 20g
Nafarroako galleta, 15g
Basotxi besoa, 100g
Etxeko txerri lodia 300g
Sagar dulzera, 300ml
Agriko pipenak, 350ml
Getariako hegaltza, 100g
Zarautxi zurik, etologikoak >12kl



Saskia **59€**

Miazabato ardi gatz, 20g
Fale gris biota, 15g
Etxeko txerri lodia 100g
Basotxi besoa, 100g
Miliare ezka, 50g
Agriko pipenak, 350ml
Getariako antoxa, 100g
Getariako hegaltza, 100g
Pikillo eska, 20g

Erosi berriaren plazan

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azaroaren 30a arte

943-30 43 45
www.berria.info
harpidetza@berria.info

saskia!



San Martin Eguna ospatuko dute gaur

Amasa » Meza Nagusia, herri kirolak eta mondeju afaria izango dituzte. Igandera arte luzatuko da jai giroa Amasan.

E. MAIZ

Atzo 20:00etan eman zieten San Martin jaiari hasiera Amasan. Behin Martina Sorginari ongietorria eginda pintxo dastaketa izan zuten Kultur Etxean.

Jaiaren egun handia gaur ospatzen dute, hau da, San Martin Egu-

na. 10:30ean Meza Nagusiarekin hasi eta ondoren, herri kirolak izango dituzte. Otategi eta Otaño aizkolariak eta Irigoien eta Izeta harri-jasotzaileak izango dira. Saioa, trikitalari eta bertsoariak alaituko dute. 20:30ean mondeju afaria izango dute Uxo Tokin.

Bihar

Gazteen eguna, 06:00etarako hasiko dute trikitalari eta dultzainarekin gosalduz. Gazteen bazkaria eta afaria ere izango dituzte. 16:30ean, oka-dantza eta Aurretsua dantzatzeko dituzte.

San Martin Eguna ospatuko dute gaur egun osorako ekitaldiekin

Amezketak » Besteak beste, haurrentzako jangelan eta herritarrentzat Beartzanen bazkariak izango dira.

ERREDAKZIOA

Mezarekin emango diote gaur hasiera San Martin Eguna ospatzeko antolatutako ekitaldiekin Amezketan, Kultur Astearen baitan. 11:00etan hasiko da meza, San Martinen bertan, eta ondoren, Laja eta Landakanda trikitilariak eta Bixente Gorostidi eta Patxi Etxeberría bertsolariak ariko dira. Bi bazkari antolatutakoak. Alde batetik, haurren bazkaria. 13:30ean izango da eta eskolako jangelan egingo dute. Bestalde, herritarrei irekia izango den bazkaria, 14:30ean, Beartzana jabetxean.

Bazkaldu eta gero, 16:00etan, Larrunari pilotalekuan, *Ino Ino badator Bonbardino* haurrentzako antzezlanak ikusteko aukera izango da. Egunari amaiera emateko txokolatada izango da nahi duenarentzat.

Zazpi Astoren Gainean bertso-eskolakoek hasi dute ikasturtea

Alegia » Ostegunero biltzen dira Intxurre elkarteak; nahi duenak bertan parte hartzerako gonbidatzen dute eskolatik.

ERREDAKZIOA

Alegiako Zazpi Astoren Gainean bertso-eskolak ikasturteari hasiera eman berri dio. Ostegunero hasi dira biltzen Intxurre elkarteak, 20:00etan. Bihar bigarren saioa egingo dute. Eskolatik azaltzen dutenez, «bertso jiran elkartu eta ahal den neurrian pixka bat ikasteko» elkartzen dira. Nahi duen guztiari gonbidatzen diote parte hartzera, «giron bikaina» izaten dutela gaineratuz.

Bertso-eskolak ekainera arte iraungo du. Bestalde, urtero bezala, ekitaldi ezberdinetan parte hartzeko asmoa dute eta eskolak berak ere ekitaldiak antolatuko dituela azaldu du.

Horrez gain, haurrei zuzendutako bertso-eskola ere martxan jarzen hasiera doazela jakinarazi dute eta herriko eskolan horren deialdia ere egingo dutela adierazi dute.

Txintxarri Eguna ospatuko dute igandean kontzertua eta bazkariarekin

Alegia » Mezan abestu ondoren, Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzek kontzertua emango dute elizan, 12:15ean.

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, Alegiako Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartek Txintxarri Eguna ospatuko du datorren igandean, hilaren 15ean. Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek kontzertua emango dute Alegiako Juan Bataiatzailea Deunaren elizan, eta ondoren bazkari legea egingo dute abesbatzako kantari izandakoekin eta koruaren jarraitzaileekin. Abesbatzako bazkideei eta urteetan abesten egon diren hildako abeslari eskainitako jaia da Txintxarri Eguna.

Goizeko 11:15ean Joan Bataiatzailea deunaren elizan meza nagusia abestuko dute helduen abesbatzakoek. Ondoren, eguerdiko 12:15ean kontzertua emango dute Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzakoek.

Txintxarri Txiki abesbatzak emango dio hasiera kontzertuari. Hiru abesti eskainiko dituzte gaztetxoek Idoia Iraolaren zuzendaritzapean. Benito Lertxundiren *Nere herriko neskatxa maite* abestia kantatuko dute lehendabizi entzuleen gozagarri. Segidan, Junkal Guerrero andoaindarrak moldatutako *Xurian xuri* abestia abestuko dute; Aitor Iraola Txintxarri abesbatzako kideak lagunduko die pianoan. Eta Afrikako sehaska



Txintxarri abesbatzako kideak iazko Txintxarri Egunean. HITZA

kanta batekin amaituko dute urten lana.

Txintxarri abesbatzako kideak izango dira hurrenakantuan arituko direnak. Zazpi abesti eskainiko dituzte Garbiñe Orbegozo alegiarren zuzendaritzapean. Estilo askotako kantak entzun ahal izango dira: Javier Busto hondarribiarraren *Shorter's gloria* kantatuko dute. Luis Elizalde zangoztarrak harmonizatutako *Nere andrea plazan dantzan* Nafarroako abesti herrikoia ere kantatuko dute.

Xabier Sarasola beasaindarrak konposatutako *Zure boza* amodiozko kanta ere entzungo da. Kantu hori Joxe Gastesiri eta

Txintxarri abesbatzari eskainitako, Sarasolak berak 1985ean Txintxarri abesbatzarekin batera Alemaniara egindako bidaia hura gogoan. Julen Ezkurra musikagile arabarraren *Lurraren pean* ere abestuko dute.

Horien ondoren, erritmoz eta estiloz erabat aldatu eta Carlos Gardelen tango argentinar baten doinuak eskainiko dituzte. *El día que me quieras* abestiarenak, hain zuzen ere. Buenos Aireseko Vivian Tabbushek egindako moldaketa bat eskainiko du Txintxarri abesbatzak eta Xabier Mingo ari tuko da bakarlari gisa. Britania Handiko The Flying Pickets taldearen *Only you* abestia kantatuko

dute estreinakoz. 80ko hamarkadan oso ezagun egin zen *a capella* kantatzen zuen pop talde hori.

Emanaldiaren amaiera aldera, Monica Aslund Suediako zuzendari eta konpositoreak eginiko *KOM!* kantua eskainiko dute, ko-reografia eta guzti.

Bazkaria Txintxarri jatetxean

Kontzertua amaitutakoan, 14:30ak aldera, bazkari-legea egingo dute herriko Txintxarri jatetxean. Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartek eskerrak eman nahi dizkie urtean zehar elkartearen jarduerara aurrera eramaten laguntzen duten erakunde, herriko elkarte eta herritar guzti.

«Guretzat egun berezia da, festa kutsua izaten duena»

GARBIÑE ORBEGOZO » Txintxarri abesbatzako zuzendaria

L. GARCIA

Txintxarri Eguneko kontzertuaz gain, bazkarian ere kantua ez dela faltako azaltzen du Garbiñe Orbegozo abesbatzako zuzendaria. **Zer suposatzen du abesbatzarentzat Txintxarri Eguna?**

Abesbatzak bazkideak ditu eta 1997 inguruan pentsatu zen urtean behin kontzertu bat egitea, bereziki bazkide horientzat eta nolabait ere egun bat jartzea abesbatzarentzat. Guretzat egun berezia izaten da, festa kutsua izaten duena. Meza izaten da, gero kontzertua eta horren ondoren bazkaria. Bazkaria ere garrantzitsua da, irekia da, hau da, nahi duena joan daiteke. Nik uste gogo dezenterekin hartzen dugun egun bat dela.

Kontzerturako egitarau berezia prestatu ohi duzue?

Beti saiatzen zara zer bait berezia egiten. Egia esan, aurtun *Only you* abestia da aurretik abestu ez dugun bakarra. Tolosako emanaldirako prestatzen egon garenez, ez dugu denbora handirik izan gauza desberdin asko prestatzeko.


Bazkarian ez da kantua faltako.

Ez da faltako ez. Askotan liburuxkak ere banatzen dira eta abesti herrikoiak abesten ditugu.

Tolosako emanaldia nola joan zen?

Oso ondo. Gustura aritu ginen. Egia esan lan asko egin genuen. Guretzat konpromiso handia zen eta nik uste ondo gaingitu genuela.

Komunitate honen ataria berritzera goaz



saldu erosi alokatu bilatu oparitu ...

Txosnak jartzeko ordenantza adostu du Udalak osoko bilkuran

Ibarra » Plazan, ilaran, bost jarri ahalko dira; egoitza soziala herrian duten «erakunde legeztatuek» bakarrik jarriko dituzte.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak jaiegunetan jarri ohi diren txosnen inguruko irizpideak arautuko dituen ordenantza onartu du osoko bilkuran. Helburua «jarduerak haur arautu eta bere funtzionamendu egokia bermatzeko» lege-dokumentu bat sortzea» dela nabarmendu du.

Araututakoaren arabera, «instalazio mota hau Udalak zehaztutako tokietan kokatu ahal izango da edota, lur-eremu partikularren kasuan, jabearen baimena aurkeztu beharko da udal-istantantzia». Horiek horrela, San Bartolome plazan, gehienez, bost txosna jarri ahal izango direla adostu du Udal batzak, eta baita ilaran jarri beharko direla ere. Era berean, txosnako arduradunei erabiltzaileen segur-

tasuna ziurtatzeko beharrezkoak diren baldintza tekniko zein garbitasun-baldintzak bete ditzaten eskatuko diete eta baita bizilagunei eragozpenik ez sortzeko ere.

Baldintzak eta adin txikikoak

Txosnek bete behar dituzten baldintzen artean, postuko mantentzearekin lotutakoak aipatu ditu Udalak, era berean, «edateko ur korrontea eduki eta hustubideak estolderia sarearekin modu ego-

16 urtetik beherako gazteek ezingo dute txosna barruan egon ez eta bertan lan egin ere

kian konektatuta egon» behar dutela ere argitu du.

Adin txikiko inguruan, aldez, ordenantzak hauei alkohola eta tabakoa saltzea debekatzen die, eta ezingo dute ez txosna barruan egon ez eta lan egin 16 urtetik behera badituzte. Bestalde, soinu-mailari dagokionez, «legeak eza-

rritiko mugak errespetatu beharko dira».

Baldintza hauekin batera, ordenantzak aipatu ezaugarriak betetzen dituen txosna jartzeko eskaera baldintza ere jasotzen du. «Ibarran egoitza soziala duten erakunde legeztatuek eskatu ahal izango dute, beti ere, eskaera egin baino lehen gutxienez bi urtez udalerrian jarduerak egin badituzte, izaera sindikal edo politikokoak kanpo geratzen direlarik», zehaztu dute.

Horiek horrela, txosna jartzearen helburua «kirol zein kulturazara edota izaera soziala duten proiektuak finantzatzeko dirua biltzea» izan behar duela ere badiordenantzak.

Elkarteen jarduerak

Udalak jasotzen dituen proposamenen artean aukeraketa egiteko «eskatzailearen jarraikotasuna, egonkortasuna eta kaudimena», hartuko ditu kontutan eta «bere jarduerak kultura, kirola edo udalerriko gizarte ongizateari egiten

dieten ekarpena edo ekintza horietaz baliatu daitekeen pertsona kopuru balioztatuaren azterketan oinarrituko» dira.

Hala ere, Udalak, «ezaugarri bereziak dituzten ekimenak baloratuko ditu, dagokion baimena ematea gomendagarria baderitzo».

Falta arinak, larriak edo oso larriak

Ordenantzan finkatu duten arautegi zabalean faltei zuzendutako atal bat ere aurreikusi dute, hauek falta arin, larri eta oso larrietan banatzen dituztelarik.

Larriak «gehiegizko zarata maila edukitzea edo ikuskapen baime-na ezeztatzea» eta «edariak kristatu

Zarata gehiegi sortzea edo edariak kristalezko edalontzietan ateratzea falta larritzat joko da

lezko edalontzietan ateratzea, osasun publikoarentzat arrisku larria dakarten osasun-neurriak haustea edo ordenantzak jasotako arauak ez errespetatzea» dira, besteren artean.

«Guztiekin dagokien zigorra izango dute, bakoitzaren larritasunaren arabera», gaineratu dute.

4-0 galdu dute ibartarrek Lizarrako Area 99 taldearen aurka

Areto-futbola » Datorren partida Castro Urdialesen kontra izango da eta bertan David Prados omenduko dute.

ERREDAKZIOA

4-0 galdu zuten Lauburu mutilek Lizarran izandako partidaren. Lehen zatian oso ondo aritu ziren ibartarrek, baina ez zuten golik sartzea lortu.

Bigarren zatian nekatuta atez ziren Lauburu jokalariek eta horixe baliatu zuten nafarrek partida irabazteko.

Datorren partida Castro Urdialesen kontrako izango da, larunbatean, baina Cristian Davilak ezingo du jokatu partida bukatu baino bost segundo lehenago kanporatu zutelako.

Aipatzekoa da Castro Urdialesen kontrako partidaren Tolosako David Prados jokalaririk ohia omenduko dutela.



Giro «aproposa» babarrun jaterako

IBARRA » Hirurogeita hamar lagun inguru bildu ziren igandean Ibarrako San Bartolome plazan jarritako karpan herriko Hauspibarra Kultur Elkarteak urtero antolatzen duen babarrun jateaz gozatzeko. Eguraldi petrala izan zen, baina Hauspibarrakoen iritziz,

«aproposa» izan zen babarrunak, odolkia, aza, saiheskia, Ibarrako piparrak eta sagar tarta jateko. Bazkalostean Hauspoak prestatutako kantu-libururakako abestiak kantatu zituzten eta baita euskal kantutegiko beste hamaika doinu ere. HITZA

Eskualdeko abeslariak Kantu Txapelketan

Kultura » Ibarra, Asteasu, Villabona eta Tolosako gazteak iritsi dira Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako finalera.

ERREDAKZIOA

Eskualdean badira ahots bikainak eta horren adierazle da Gipuzkoako XIII. Kantu Txapelketako finalerako txartela ere lortu dutela.

Finala igandean izango da, hilak 15, 18:00etan Donostiako Antzoki Zaharrean, eta bertan izango dira Ibarrako Oihane Sarasola su ta Garren *Itxaropena* kantuarekin, Asteasuko Naroa Geresta *Infernu Berdina* izeneko sormen lanarekin eta Tolosako Garazi Egiuren be-

rea den *Haizea* abestiarekin. Hiru bakarlari hauekin batera, dena den, Villabonako talde bat ere arituko da, Izarok, Aiorak eta Garazik osatzen duten taldea, hain zuzen. Hirukoteak Mikel Urdangarinen *Non geratzen den denbora* kantatuko du.

15 partaide finalean

Guztira 15 partaidek hartuko dute parte finalean. Horietako hamar bakarlariak dira, hiru bikoteak eta bi talde ere arituko dira.

Antolatzaileek, beste hainbat konturen artean, abeslariak sormen lanak aurkeztu dituzten alaez hartzen dute kontutan eta aurtengo Gipuzkoako Kantu Txapelketako finaleko hamabost kantueta-tik zazpi sormen lanak dira.

Hilberriak

JOAQUIN AZKUE IRAZU

Atzo hil zen, 82 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

Goian begi

-Beti bihotzean izango zaitugu-

Haren arimaren zuzendaria: Joxi Eguzkiza emaztea: Genoveva Murua; seme-alabak: Francisco Javier eta Amaia Lete, Joakin (†); anai-arrebak: Joxe eta Juanita, Rufina eta Jesus; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitetzela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN Alegiko SAN JOAN BATAIATZAILEA parrokian elizan, eguingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



ALEGIAN
2009ko azaroren
11n

Helbidea: Larraitz auzoa
Oharra: Gorputz beldi Tolosako FUNERARIA VASCONGADA Tanatorioan egongo da, gaur arratsaldeko 17:00ak arte.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Txapel berri bat irabazi du Jon Jaunarena pilotariak

Leitza » Olano-Gilek Errotxapean ezin izan zuten Jaunarenak Labriten lortutako garaipena erreplikatu.

ASIER IMAZ

Aurrera Pilota Eskolakoek bi final jokatu zituzten asteburuan. Nafarroako Kluben Arteko Txapelketan, 22 urte azpikoetan, Jon Jaunarenak 18-5 irabazi zion Zarantoni larunbatean.

Errotxapeko Txapelketaren finalean berriz, infantiletan, Olano-

Gilek 13-18 galdu zuten Iturriaga-Irribarriaren aurka.

Partida hauekin batera, Nafar Joketoako lehiak ospatu ziren hainbat herritan. Leitza adibidez, asteburuan guztira 9 partida jokatu zituzten: ostiralean lau eta larunbatean bost.

Azken egun honetan sei partida jokatzekoak baziren ere, Joanes Illarregi eta Beñat Billabona bikoteak jokatu behar zuena, bertan behera gelditu zen. Emaitza esanguratsuenen artean, Koldo Hernandezorenak eta Mikel Zabaletak lortu zuten 18-leko garaipen garbia aurkitzen da.

Paleta Goma

Iera Agirrek eta Saioa Aristorenak ere larunbatean jokatu zuten euren partida. Nafarroako Kluben Arteko Paleta Goma Txapelketan, Oberenako bikotearen aurka garaipen estua lortu zuten leitzarrek Iruñean, 30-27ko emaitzarekin.

Lizarrako Txapelketa

Asteburuko azken partidak, igande, Lizarran jokatu zituzten Aurrerako pilotariak. Infantiletan, Mikel Erasok 3-18 galdu zuten Arrueren aurka. Maila berean, Ander Gartziaurenak 18-12 irabazi zion Lasori.

«Hanka bizkorrak dituenek, atzean edukitzen saiatu nintzen»

JON JAUNARENA » Aurrerako pilotaria

Nafarroako Kluben Arteko Txapelketa irabazi zuen Jon Jaunarenak (1992, Leitza) 22 urte azpikotan. Finala larunbatean jokatu zuen, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Frontoi osoan 18-5 irabazi zion Zarantoni Leitzako aurrelariak. Txapela asko irabazi dituela esaten diozunean, «suerteko» dabilela aipatzen du berak.

Nola aurkitu zenuen zure burua larunbateko partidari?

Hasieran pixka bat urduiri nengoen, baina gero, partida nola joan zen ikusita, gustura. Dena ongi aterazen.

Finala jokatu baino lehen, nola jokatu pentsatu al zenuen?

Atzean eduki behar nuela argi nuen. Aurrean dejadekin eta hasi ezker, denak harrapatzen zituen. Hoberena beraz atzean edukitzea zela pentsatzen nuen.

Kanpotik ikusita, 18-5, erraza izan zela dirudi.

Hasi orduko aurrea hartu nuen 6-0. Gero nahiko erraz irabazten joan nintzen, gehienean dominaturik edukit bainuen. Gutxi gorabehera horrela joan zen partida.

Finaleko aurkaria Zarantoni izan zenuen. Nolako pilotaria da bera?

Golpe askokoa ez da baina hanka bizkorrak ditu. Pilota asko eramaten ditu *buenara* eta, bere aurka lan asko egin behar izaten da tantoa lortzeko.

Eta nolako pilotaria da Jon Jaunarena?

Golpea badudala uste dut. Gero aurrean tantoa bukatzea gustatzen zait. Batzuetan besteetan baino gehiago kostatzen da baina.

Ikasketak, pilota... Nola moldatzen zara?

Nahiko erraz. Goizetan eskola izaten dugu eta arratsaldez entrenamendua. Bi ordu inguru ibiltzen gara pilotalekuan, eta ondoren

arratsalde guztia libre edukitzen dugu.

ASPERekin ari omen zara entrenamenduetan. Zein motatako erlazioa daukazu pilota enpresa honetarekin?

Eurekin aurrekontratu bat daukat. Gero Jokin Etxanizek, ASPEko teknikoak, entrenamenduak antolatzen ditu eta horietara joaten naiz. Berez bi astetik behin izaten dira baina partidaren arabera joan ohi naiz.

Bidea hortik ikusten al duzu?

Bidea beti ikusten duzu. Behin ASPERekin entrenatzen hasita,

ilusioa behintzat beti egiten duzu. Baina ezin duzu jakin gero zer gertatuko den. Orain behintzat saiatu eta gero ikusiko da; ezin bada, horrela beharko du eta aurrera segituko dugu.

Entrenamenduk Etxanizekin eta Aurrerakoekin egiten dituzu. Zein da bien arteko diferentzia?

Helburua nire ustez berdina da: ikastea eta egiten ditudan hutsak hobetzea. Han pilotak beti fuertagoak dira; hori da diferentziarik handiena. Pilota eta erritmo aldetik entrenamendu fuertagoak izaten dira.

@ Facebook. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA eskualdeko egunkaria Facebook-en dago. Beraz, albisteak, argazkiak, bideoak, audioak, iritziak, eztabaidak... ikusteko aukera izango duzu aurrerantzean. Horretarako egin behar dena erraza da: Facebook-en sartu, eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza jarri, besterik ez duzu egin beharko egunkariaren profile-ra jotzeko. Bertan iritziak eta iradokizunak sartzeko aukera izango duzu. Web orria berriz ohiko ondorengo helbidea da:
www.tolosaldekohitza.info



Mendibil Mendi Taldeak aurten 'Mugarrien Itzulua' antolatu du. HITZA

Toloño mendilerroan ibili ostean upategian bazkaltzeko aukera

Leitza » Hilaren 14ko, larunbateko, irteeran parte hartu nahi duenak gaur dauka izena emateko azken aukera.

A. IMAZ

Leitzako Mendibil Mendi Taldeak Arabako Errioxara, Toloño mendilerroa, irteera antolatu du hilaren 14rako, larunbaterako.

Antolatzaileek bazkariaren kontua azpimarratu nahi izan dute, horretarako gaur amaizten baita izena emateko epea.

Upategian bazkaltzeko aukera

Leitzatik Toloñoarako irteerak bi zatizango ditu: ibilaldia eta upategia.

Oialde paretik autobusez 07:30ean irteerako dira hilaren 14an. Behin Toloño mendilerro ingurura iristean, «eguraldiaren arabera gain bat edo beste eginen dugu. Ibilbidea 3-4 ordukoa izanen da».

Ondoren, Bastida edo inguru horretako beste nonbaiten, «upa-

tegia ikusi eta bazkaltzeko aukera izanen dugu».

Bazkaltzeko aukera ere bada

Arabako Errioxara joan nahi duenak, Astiz eta Maimur liburudendetan eman beharko du izena. Antolatzaileen esanetan gaur da horretarako azken eguna.

Bazkaltzeko asmoa duenak 23 euro ordaindu beharko ditu alde batetik. Autobusez joan ahal izateko 10 euro ordaindu beharko dira eta izena ematerako ulean 6 euroko fidantza jarri beharko da. Azkenean, horretarako gaur amaizten sa 5 euro gutxiago ordaintzeko aukera izango dute.

15eko talderik osatu ezean, jai

Mendibil Mendi Taldeak jakinarazi dutenez, «15eko lagun-taldea osatzen ez baldin bada, irteerabertan behera geldituko da».

Alde batetik arrisku honi aurre egiteko eta beste alde batetik ohiko den legez, antolatzaileek Leitzako eta inguruko herritarrek gonbidatu eta animatu nahi izan dituzte larunbatean antolatu duten irteerara joan daitezten.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosako enpresa batek zerbitzaria behar du, asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko. Emakumea eta eskarmentuduna. 661 46 31 93.

SALGAI

■ **Txakurkumeak.** Braco Aleman arrazako txakurkumeak salgai. Irailaren 5ean jaiok. Telefona: 943 67 25 76

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Santa Elena mendira Uzturreren eskutik

TOLOSA • Alpino Uzturre elkarteak azaroaren 15erako, igande hone-tarako, mendi irteera bat antolatu du. Txangoa Egileoren hasiko dute mendizaleek eta bukaera, ber-rriz, Roitegin emango diote. Santa Elena (1.109 metro) mendia igoko dute irteera honetan. Bost ordu eta erdiko txangoa izango da. Bertan parte hartu nahi dutenek badute oraindik aukera. Horretarako izena eman dezaketek elkartean eta bi bide eman dituzte horretarako: Telefonoa zenbakira deituta (943 65 27 89) edo alpinouzturre@hotmail.com helbide elektronikoan. Bazkideek 11 euro ordaindu behar-ko dute, eta ez bazkideek 13 euro izena ematerakoan. Autobusaren irteera Santa Klaratik izango da, 08:00etan. HITZA

mantangori irkin

Zinema etxean 4

6 DVD euskaraz

Larunbat honetan

Gipuzkoan eta Nafarroan

berria

HARRPIDEDUNENTZAT: BILDUMA OSOA 26 € ESKARIA: EGITEKO 943 39 43 45. harpidetza@berria.info edo www.berria.info

Babeska: **ELIZEN JAIAREN HITZA** GORRIKIN DUTENAKO

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

A Agenda

Mendia

■ **Asteasu.** Mendi Astea: Fidel Mendiaren *Pirineoak 08/09*, zortzi *hilabeteko ski superdenboraldia* proiektzioa udal aretoan 20:00etan.

Deialdiak

■ **Irura.** Bilera udaletxeko batzar-raldi aretoan, 19:00etan. Azaroa-ren 22ko Santa Zezilia eguna, emakumeen tratu txarren aurkako eguna, hilaren 26an egingo den herri batzarra eta eguberrietako egitarauaren nondik norakoan izango ditugu aztergai.

Jaiak

■ **Amasa.** Sanmartinak: 10:30ean meza nagusia, ondoren Otaegi eta Otaño aikolariak eta Irigoien eta Izeta harrijasotzaileak, bertsolari eta trikitilariak eta 20:30ean mon-deju afaria Uxo Tokin.

Kultur asteak

■ **Amezketeta.** San Martin Eguna: 11:00etan meza San Martinen, ondoren Laja eta Landakanda trikiti-lariak eta bertsoan Bixente Go-rostidi eta Patxi Etxeberria, 13:30ean umeen bazkaria jange-lan, 14:30ean bazkaria Beartzana jatetxean, 16:00etan Larrunari pi-lotalekuan *Ino Ino badator Bonbar-dino* antzerkia eta ondoren, txoko-latada denentzat.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

» IRRATIA

Txolarre irratia
11:00-13:30. Tolosaldeko Ahotsa: Albiste-gia, Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak.
13:30-14:00. Albistegia - Info 7. **14:00-15:00.** Tolosaldeko Albistegia. **17:00-17:45.** Musika nobedadeak. **17:45-18:00.** Argia astekaria. **18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena). **20:00-20:30.** Albistegia, Info 7. **21:00-23:00.** Bide okerretik.

» TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis.
09:30. Tolosaldean Gaur. **10:00.** Errugbia: Ampo-Santboiana. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Estetika. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Muka-Muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Errugbia: Ampo-Santboiana. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Estetika. **16:30.** Zahar berri. **17:00.** Muka-Muka. **17:30.** To-losaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoako kultura. **18:30.** Saio berezia: Folklore 2. **19:00.** On ein! **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Klipak. (*16:30etik 20:00etarako blokea 4 orduro).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunikuzinik.

A Agurrak



Urte askoan!

Inhar Ortiz Vicente (Larraul). Igandean 2 urte. Zorionak bihurritxo, etxeko guztien partetik eta bereziki aita, ama eta zure arreba Nahiaren partetik.

Pirritx, Porrotx eta MariMotots

IRRIEN LAGUNAK CDa

16 €

Euskal pirata bihurriak gara; zatoz gurekin irriak abordatzera!

Noiz eta nola egin eskaria?

Azaroaren 30 arte:

• 902-82 02 01
• harpidetza@hitza.info

Bidalaketa gastuak daan



PIRATAK
DVDa
18 €

hitza